



**ADINEKO PERTSONEN  
AURKAKO TRATU  
TXAR EKONOMIKO  
ETA FINANTZA-ABUSUEN  
PREBENTZIOA,  
DETEKZIOA  
ETA ESKU-HARTZEA**

**#EUSKADIBERRIA**



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**



## 1. Zer da tratu txar ekonomikoa edo finantza-abusua?

Adineko pertsonen aurkako tratu txar ekonomikoa edo finantza-abusua, beste pertsona batek adinekoaren dirua, ondasunak edo eskubide ekonomikoak behar ez bezala erabili, kontrolatu edo kaltetzeko egiten duen edozein jarduera da.

Jarduera horien adibide dira: kontu edo txartelen baimenik gabeko erabilera, dokumentuak sinatzeko presioak, pentsio edo laguntzen jabetzea, salmenta edo dohaintza behartuak edo pertsonak benetan zer egiten ari den ulertu gabe hartutako erabakiak.

Beti ez da ageriko lapurreta bat izaten. Askotan, laguntza, zaintza, izapideen kudeaketa edo ustez “bere onerako” hartutako erabakiak dirudite. Horregatik, zaila izan daiteke antzematea, bai egoera pairatu duen pertsonarentzat berarentzat, bai haren ingurunearentzat.



## 2. Zergatik da garrantzitsua horri buruz hitz egitea?

Tratu txar mota hau konfiantza- edo mendekotasun-egoeretan gertatzen da, eta senideek, zaintzaileek, gertuko lagunek edo zaurgarritasun-egoera batez baliatzen diren pertsonak esku-hartu ohi izaten dute. Kalte ekonomikoaz gain, beldurra, lotsa, isolamendua, ongizatearen narriadura eta autonomiaren galera eragin ditzake.

Horri buruz hitz egiteak eta garaiz hautemateak kalte larriak saihestu eta adinekoen duintasuna, segurtasuna eta eskubideak babesten lagun dezake.

### 3. Nola gerta daiteke?

Tratu txar ekonomikoa modu askotan pairatu daiteke. Hona hemen egoera ohikoenak:

- adineko pertsonaren pentsioaz, laguntzez edo errentez jabetzea, eta bere ongizatea hobetzeko ez erabiltzea;
- bere txartela, libreta, gakoak edo online banka erabiltzea, horretarako baimenik gabe;
- transferentzia, mailegu, opari, abal edo dohaintzak egiteko presioa egitea;
- testamentu, onuradun edo ahalordeetan aldaketak egitera behartzea;
- ondo ulertzen ez dituen kontratuak, salmentak edo dokumentuak sina ditzala lortzea;
- hornidurak, komunitatea, elikadura edo sendagaiak ordaintzeari uztea, nahiz eta pertsonak baliabideak izan;
- dei, mezu, iruzur digital edo etxez etxeko salmenta oldarkorren bidez engainatzea.



### 4. Arriskua areagotu dezaketen egoerak

Adineko pertsona guztiak ez daude egoera berean. Inguruabar batzuek zaugarritasuna areagotu dezakete; hala nola, isolamendu sozialak, izapideak egiteko mendekotasunak, duela gutxiko alarguntasunak, arrakala digitalak, mendekotasun emozionalak eta narriadura kognitiboak edo nahasmenduek. Familia-gatazkek edo inguruko pertsonaren bat ekonomikoki adineko pertsonaren mende egoteak ere izan dezakete eragina.

Laguntza behar izateak ez du erabakitzeko gaitasuna galtzen dela esan nahi. Gakoa laguntza eskaintzea da, betiere pertsonaren borondatea, nahiak eta lehentasunak errespetatuta.





## 5. Erne egoteko seinaleak

Seinale batzuk identifikatzea komeni da. Seinaleetako batekin bakarrik ezin da egjzatu abusua dagoenik, baina horietako bat baino gehiago somatzean, adi egon beharko gara.

## Adineko pertsonaren seinaleak

Ordaindu gabeko fakturak, ustekabeko zorrak, oinarrizko gastuetarako dirurik ez izatea, banku-mugimenduak ulertzeko zailtasun berriak, kopuruei edo dokumentuei buruzko nahasmendua, beldurra, urduritasuna edo bertsio-aldaketak egon daitezke. Gerta daiteke, halaber, diru sarrerak izan arren, elikagaiak, medikazioa, audifonoak, betaurrekoak, arropa egokia edo berogailua falta izatea.

## Inguruko seinaleak

Beste pertsona batek, beti, bere ordeztuz erantzuten badu, erne egon behar da. Horrez gain, hitz egiten ez uztea, une oro presente egotea edo senideekin, lagunekin edo auzokoekin harremana mugatzea ere kontuan izateko gauzak izango dira. Kezkagarria da, halaber, norbaitek presa handia izatea eragiketarik itxeko, dokumentuak sinatzeko edo dirua kontrolatzen duela justifikatzeko, “onena delako” edo “jada ezin duelako erabaki”.

## Jarduera ekonomikoaren seinaleak

Susmagarriak dira beren bizimoduarekin bat ez datozen diru-ateratzeak edo transferentziak, titularren, onuradunen edo ahalordeen bat-bateko aldaketak, txartelen eta gakoaren erabilera ez oso argia, edo azalpen nahikorik gabeko dokumentuen sinadura.

## 6. Nola prebenitu

Gaiari buruz taburik gabe eta adineko pertsonari zor zain heldutasunetik hitz egitea da prebentzio neurri onena. Garrantzitsua da laburpenak, ordainagiriak eta kontratuak lasai berrikustea, gakoak edo PINa ez partekatzea eta dokumentuak presaz edo presiopean ez sinatzea.

Konfiantzan eta errespetuan oinarritutako benetako laguntza-sare bat edukitzeak ere laguntzen du, baita eragiketa garrantzitsuetan bigarren iritzi bat eskatzeak ere, hala nola banku-erakundeetan, notariotza batean, gizarte-zerbitzuetan edo aholkularitza juridikoan. Bankua erabiltzeko edo ordainketak kudeatzeko, arrakala digitalak ez du hirugarren pertsonen mende jartzera behartu behar.

Garrantzitsua da honelako esaldiak ez normalizatzea: “pentsioa jada familiarena da”, “etxeak jada ez du behar” edo “hau zainketengatik ordainketa da”. Horrelako ideiek kontrolatzeko eta gabetzeko moduak ezkuta ditzakete.

## 7. Zer egin abusu-egoera bat susmatzen baduzu

Lehenik eta behin, adineko pertsonarekin espazio lasai batean hitz egiten saiatu behar dugu, presiorik gabe eta, ahal bada, bakarrik. Komeni da errespetuz galdetzea zer gertatu den, nork laguntzen dion diruarekin, egindako eragiketak ulertzen dituen ala ez eta presionatuta edo deseroso sentitu den.

Ondoren, informazio erabilgarri guztia gordetzea komeni da: laburpenak, ordainagiriak, mezuak, kontratuak, datak, izenak eta beste edozein zantzu. Bidegabeko mugimenduren bat edo iruzurren bat egon daitekeela uste bada, lehenbailehen jarri behar da harremanetan banketxearekin, txartelak blokeatzeko, eragiketak berrikusteko eta susmoa jasota uzteko.

Egoerak hala eskatzen duenean, laguntza profesionala bilatu behar da. Gizarte-zerbitzuek arriskua baloratu eta esku-hartzea bideratu dezakete. Delitua, iruzurra, mehatxuak edo derrigortzeak egon daitezkeela uste bada, poliziarengana jo behar da, edo 112 zenbakira deitu, berehalako arriskua dagoenean. Ahalordeekin, jaraunspenekin, salmentekin edo dohaintzekin lotutako kasuetan, posible da aholkularitza juridikoa edo notariala behar izatea.





## 8. Nola hitz egin kaltetutako pertsonarekin

Funtsezkoa da epaiketa, errua edo zuzeneko liskarra saihestea. Biktima askok lotsa, beldurra edo mendekotasun emozionala sentitzen dute kalte egiten dietenarekiko. Horregatik, erabakiak inposatu gabe entzutea, sinestea, laguntzea eta laguntza eskaintzea komeni da.

Honako galdera erraz hauek balio dezakete:

- Nor arduratzen da fakturak ordaintzeaz edo bankura joateaz?
- Zure kontuak edo laburpenak ulertzeko zailtasunik izan duzu oraintsu?
- Benetan egin edo eman nahi ez zenuen dirurik, oparirik edo sinadurarik eskatu al dizu norbaitek?
- Ba al dago zure txartela, mugikorra edo gakoak erabiltzen dituen pertsonarik aurrean ez zaudenean?
- Bazkaltzeko, sendagaietarako edo oinarrizko gastuetarako diru-falta duzu diru-sarrerak izan arren?

## 9. Norengana jo

Susmo-egoera baten aurrean, honako hauetara jo daiteke:

- banku-erakundea, eragiketak berrikusteko eta babes-neurriak aktibatzeko;
- oinarrizko gizarte-zerbitzuak edo udal-zerbitzuak, arriskua baloratzeko eta erantzuna bideratzeko;
- Udaltzaingoa edo Ertzaintza, delitu- edo iruzur-zantzuak daudenean.
- notariotza edo aholkularitza juridikoa, ondare-dokumentu, -ahalorde edo -eskualdaketei buruzko zalantzak badaude;
- 112, berehalako arriskua, hertsapen bizia edo abian den iruzur bat badago.

## 10. Azken ideia

Adineko pertsonak beren diruari, ondareari eta bizimoduari buruz erabakitzeko eskubidea dute. Laguntza behar izateak ez du esan nahi erabakitzeko gaitasuna galtzen denik. Tratu txar ekonomikoak prebenitzeko, errespetua, entzutea, informazio argia eta erantzun koordinatua behar dira alerta-seinaleak agertzen direnean.